

## ZAHARTZEN DA DERRIGORREZ ETA HAZTEN BORONDATEZ

1. Gure kontuak zabaldu nahirik hartu dogu lizentzia, eskola asko ez dgu baina, bada esperientzia. Eskola ederrena urteak dakarrena, bizitzako zientzia. Bizi bazara, lortuko dozu hartuizu pazientzia.
2. Urte askotan bizi dan batek daki bizitzako barri, neurri danetan probatua da, behin nasai eta behin larri. Lehen dana zan pekatu, gaur dana da askatu... Zer dan ona nork igarri? Sasoia joanda, bozala kendu eta pentzua ekarri...
3. Gure kontuak kontu ei dira sarritan dogu entzuna, zelan ukatu geure bizitzan geuri gertatu jakuna? Zaharrok ez ei dakigu, ezjakinak beti gu..." Nor ete da jakituna? Titulu eta zarata asko baina nun ete zentzuna?
4. Gure eskola gehiena dogu geuk bizitzan ikasia, baina sinistu ta entzun nahi ez, hau bai dala desgrazia! Gora aitita-amamak gorde ohitura onak zaindu geure errazia; orain arte lez, izan dagigun Jaungoikoaren grazia.
5. Ondo jan ta lo, hartu atsedeen, eta baztarrak ikusi, hauxe da gure bizi guztiko sasoi eder ta nagusi. Zahartzea da derrigorrez, hazi gogo bizkorrez, adorez goiari eutsi! Denok alkartu gaitezuan eta bagarala erakutsi.
6. Luzaro bizi izan garanok pobre edo mixerian, ez gara neurritz ondo moldatzen orain dogun gulerian. Inpernuko auspoa, gaur da aingeruzkoa, hau suerte txarra perian... Txanda pasata, sartu gara gu bizitzako komerian.
7. Jubilatuok askotxo gara eta gero ta gehiago, guztiok alkar hartu ezkerok, joko genduke ordago. Zahartzen da derrigorrez hazi gogo bizkorrez, adorez goiari eutsi! Hainbeste diru ez zan baina lehen bizi ginan pozago.
8. Kontu kontari hasi ezkerok, ezin egundo amaitu, Hauxe esanda, nahikoa dogu inor ez dedin gogaitu. Gaurko gure esanak egiak dira danak, gura daunak jarraitu. Nahi genduzanak esan ditugu horrek kontsolatzen gaitu.

A.Martzel